

2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

# Enpresaren ekonomia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



**EUSKAMPUS**

Nazioarteko Bikaintasun Campus  
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2012ko EKAINA

**ENPRESAREN EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2012

**ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

## **A AUKERA**

**A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.**

Irakur ezazu testu hau, eta erantzun iezaiezu galderei:

### **EAE-KO ENPRESAK MUNDUA KONKISTATU NAHIAN**

Kanpoaldean duen presentziari eta esportazioei esker, hobeto ari da jasaten Euskadi krisiaren erasoak. Urteko lehenbiziko sei hiletan, EAeko esportazioak 8.700 milioi eurokoak izan dira; hots, % 20 hazi dira. Nazioartekotzea, **balio erantsia** eta berrikuntza: horiek dira dagozkien sektoreetan munduko aitzindarien artean kokatzea lortu duten euskal enpresen ezaugarriak.

Viscofan, 1975ean Nafarroan sortutako enpresa, **munduan lider** bihurtu da haragi-industriarako hesteki artifizialen ekoizpenean eta banaketan. 1993an Brasilera hedatu zen; 1998an, AEBra, eta iaz behin betiko jauzia egin zuen munduko merkatu handiena izan daitekeenera, Txinara, han lantegi bat inauguratu zuenean. **Nazioartekotzeak** —gaur egun, munduko 80 herrialdetan dago— eta **I+G**aren alde egiteak —kolagenoaren inguruko bioingeniaritza garatzen du— lider ukaezin bihurtu dute Viscofan.

Munduan energia berriztagarriek, eolikoek batez ere, ardatz nagusi bat dute Euskadin: Gamesa. Bere garaian aerosorgailuen fabrikazioan munduan aitzindari zen Vestas Danimarkako enpresarekin egin zuen negoziazio bikain bati esker, aerosorgailuen fabrikazioan hasteko behar zuen **know how**a lortu zuen. Gaur egun, aitzindaria da munduan aerosorgailuen ekoizpenean, eta parke eolikoan sustapenean eta kudeaketan ere bai.

Tubacex, Arabako siderurgia-enpresa, bere sektorean munduko **merkatu-kuota** handienetako bat duen euskal enpresetako bat da. Soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzezko hodiaren merkatuaren % 20 kontrolatzen du Tubacexek; sektore horretan, munduko bigarren ekoizlea da.

CAF 1905ean hasi zen tren-bagoiak egiten Beasainen. Gaur egun, tren-materialetan munduko bosgarren ekoizlea da. CAFek bere ekoizpenaren % 50 baino gehiago saltzen du kanpoan, eta lantegiak ditu Mexikon, Brasilen eta AEBn. CAFek 4.000 milioiko **eskari-zorroa** du, eta hiru urterako baino gehiagorako eskari bermatuak ditu.

Panda Security birusen aurkako softwarearen arloan mundu osoko laugarren saltzailea da. Nabarmena da **berrikuntzaren** eta nazioartekotzearen alde egin duen apustua. Panda Security aitzindaria da softwarean; dozena bat herrialdetan bulegoak ditu, beste 40 herrialdetan **frankiziak**, eta berrehun herrialdetan baino gehiagotan ditu bezeroak.

### **Galdekizunak:**

- Azaldu eta iruzkindu testuan azpimarratuta agertzen diren hitzen esanahia.
- Azaldu ezazu nolako garrantzia daukan euskal enpresentzat nazioartekotzeak.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2012ko EKAINA

**ENPRESAREN EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2012

**ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

**A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.**

Enpresa batek ilea mozteko makinak saltzen ditu, eta mugimendu hauek erregistratu ditu maiatzean biltegian:

01/05	Hasierako izakinak	500 unitate 12 €/u.
05/05	Erosketak A hornitzaileari	350 unitate 11,5 €/u.
07/05	Salmentak B bezeroari	400 unitate 25 €/u.
13/05	Erosketak A hornitzaileari	600 unitate 10,25 €/u.
17/05	Salmentak B bezeroari	500 unitate 24,5 €/u.
24/05	Erosketak D hornitzaileari	600 unitate 13 €/u.
28/05	Salmentak B bezeroari	400 unitate 25 €/u.

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu maiatzeko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) balorazio-metodoak erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa.

**A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.**

ISATOP S.A. enpresako zuzendaritzak sekzio batean hiru urte iraungo duen handitze bat egitea erabaki du. Horretarako, inbertsio-aukera hauek ditu:

X aukera: Inbertsioa 10.000 € izanik, hasieran 8.000 € ordaindu beharko litzuzke, eta gainerakoa hurrengo urtean. Lehenengo urtean, 6.000 €-ko fluxu garbia lortuko luke. Bigarren urtean, 5.000 € kobratuko litzuzke eta 1.000 € ordaindu beharko litzuzke, eta, hirugarrenean, 5.000 €-ko fluxu garbia eta 500 €-ko hondar-balioa izango litzuzke.

Y aukera: Inbertsioa 9.000 € izango litzateke, eta hasieran osorik ordaindu behar litzateke. Aurreikusitako fluxu garbiak urte bakoitzean 2.000 €, 6.000 € eta 4.000 € izango lirateke, hurrenez hurren.

Z aukera: Inbertsioa 11.000 € izango litzateke, eta hasieran osorik ordaindu behar litzateke. Urtero 5.000 €-ko ordainketak izango litzuzke, eta urte bakoitzean 9.000 €, 10.000 € eta 12.000 € kobratuko litzuzke, hurrenez hurren.

Metatutako inflazio-tasa % 4 bada eta, inflaziorik gabe, enpresak eskatzen duen errendimendua % 8 bada:

1. Zein inbertsio da egokiena Balio Eguneratu Garbiaren irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
2. Eta inbertsio bakoitzaren Pay Back-aren irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
3. Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2012ko EKAINA

**ENPRESAREN EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2012

**ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

**A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu**

AZKUNE S.A. enpresak XX osagaiak erosten ditu Malaysian, 11 €-an unitateko. Pentsatzen ari da berak ekoiztea osagaiok, eta, kostu-azterketa egin ondoren, honako datu hauek atera zaizkio: lantegia zabaltzea: 650.000 €; makineria erostea: 300.000 €; langile berriak kontratatzea: 450.000 €; beste kostu batzuk: 200.000 €; lehengaiak: 4 €/unitate; elektrizitatea: 1,50 €/unitate; bestelakoak: 0,50 €/unitate.

Datu horiek kontuan izanik:

- a) Kalkula ezazu gutxienez zenbat unitate ekoitzi beharko diren enpresan bertan ekoiztea Malaysian erostea baino erabaki egokiagoa izateko.
- b) Egin ezazu adierazpen grafikoa.
- c) Enpresak 250.000 unitate behar izanez gero, kanpoan erostea enpresan bertan ekoiztea baino erabaki hobea izateko, zenbatekoa izan behar luke gehienezko erosketa-prezioak?
- d) Enpresak 400.000 unitate behar izanez gero, zein da erabakirik egokiena (erostea ala ekoiztea)? Egiaztatu erantzuna aukera bakoitzaren kostuak kalkulatu.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2012ko EKAINA

**ENPRESAREN EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2012

**ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

## B AUKERA

### B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

LEA enpresak 300 unitate kontsumitzen ditu hilero (egunero kopuru berdina) eta 50 unitateko segurtasun-stocka du. Hornikuntza-epea 10 egunekoa da, eta eskaera-bolumena 2 hilean kontsumitzen diren unitate kopurua da (hil bat = 30 egun).

Kalkula itzazu hauek:

1. Eskaera-puntua
2. Batez besteko stocka
3. Errotazio-indizea
4. Egin ezazu adierazpen grafikoa
5. Garraio-greba batengatik, 2. eskaera 3 egun beranduago iritsi da. Zer egoeratan dago enpresa? Bezeroak hornitzeko gai izango da?
6. Eta eskaera 10 egun beranduago iristen bada? Enpresarentzat nolako ondorioak izango ditu? Adieraz ezazu hori aurreko grafikoan.

### B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

TXOBIL enpresak txokolatea ekoizten dihardu. Joan den urteko plantilla 80 langilez osaturik zegoen, eta 850.000 kilo txokolate ekoizti zituen. Langile bakoitzak urtean 1.920 ordu egin zituen. Aurten, langileak egin beharreko urteko ordu kopurua mantenduta, plantilla % 10 murriztu du enpresak. Hala ere, urteko ekoizpena 910.000 kg izango da.

Honako hau eskatzen da:

1. Kalkula ezazu TXOBIL enpresak bi urte horietan izan duen produktibitatea.
2. Azter ezazu urte horietako produktibitatearen bilakaera.
3. Ekoizpen-sektore horretan azken urteko batez besteko produktibitatea langileko 6 kg/ordu izan bada, azter ezazu zein den TXOBIL enpresaren egoera sektore horretako beste enpresekiko.

### B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu.

“VENTO S.A.” enpresak artilezko jertseak ekoizti eta saltzen ditu, eta gonak komertzializatzen ditu. 2010eko abenduaren 31n, ondare-elementu hauek ditu.

- Ehuntzeko makineria.....54.700 €
- Eskudirua kutxan.....4.500 €
- Biltegian dituen jertseak ..... 19.500 €
- Biltegian dituen gonon balioa .....20.000 €
- Lantegiaren balioa .....288.300 €  
haietatik lurraren balioari dagozkionak 108.000 € dira
- Gizarte Segurantzak zor diona..... 15.000 €
- Enpresaren aldeko saldoa BBVAko kontu korrontean .....36.000 €
- Argiaren faktura zor du.....780 €
- Biltegian duen artilearen balioa .....4.500 €
- Jertseak saltzeagatik kobratzeko dituen fakturak.....30.750 €
- Artilearen hornitzaileei ordaintzeko dituen fakturak..... 17.700 €



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2012ko EKAINA

**ENPRESAREN EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2012

**ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

- Bezeroek onartutako truke-letrak ..... 37.580 €
- Banku bati 3 urte barru itzultzeko mailegua ..... 105.000 €
- BEZaren likidazioagatik Ogasunari zor diona..... 68.550 €
- Ekitaldiko emaitzak, MOZKINA..... 20.000 €
- Banaketarako furgoneta ..... 24.000 €
- Ekipo informatikoak..... 3.000 €
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua..... 1.500 €
- Kapital soziala ..... ¿???????

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masetan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:
  - Ibilgetua
  - Diruzaintza edo altxortegia
  - Likidezia
  - Zorpetze osoa
  - Bermea

#### **B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu.**

Irakurri artikulua, eta erantzun galderari.

Gaur egungo krisiak erakutsi du gobernuek zeregin berri bat onartzen zutela: azken instantziako arrisku-onartzailearena. **Merkatu pribatuak porrot** egiteko zorian zeudenean, arrisku guztia gobernura iragan zen.

Stiglitz-ek dio haserre bizian dagoela krisiaren erruagatik mundu osoan lanik gabe geratu diren 170 milioi lagun izenean —berak kalkulatu duenaren arabera— eta ohiko zergadunengatik, zeren orain eskatzen baitzaie zerga gehiago ordaintzea, erretiratzeko adina atzeratzea eta zerbitzu publiko txarragoak jasatea, bakarrik bankarien diru-goseagatik.

- Azaldu ezazu azpimarratutako hitzen esanahia.
- Erlaziona ezazu krisiaren kontzeptua zergekin eta erretiratzeko adinarekin, gobernu batzuek krisi ekonomikoari aurre egiteko pentsatzen ari diren neurriak diren aldetik.

# BILTEGI FITXA

ERIZPIDEA:

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:  
ÚNTATE KOPURUA:



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

### ENPRESAREN EKONOMIA

Ikasleari ariketa bakoitzean bi aukera ematen zaizkio, A eta B. Bi aukerek 4 edo 5 galdera dituzte. Galderak balioesteko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAN ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute zuzentzaileek.

#### A AUKERA

Bi aukeretan lehenak ekonomiako dibulgazio-testu bat du, komunikabide sozialetatik jasotakoa, eta edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea eskatzen da. Galderetan, termino batzuen esanahia aurkeztutako testuaren testuinguruan azaltzea eskatzen da, edo, bestela, testuari lotutako argudio ekonomikoren bat azaltzea. Galdera honek 2 puntu edo **2,5 puntu** balio du, gehienez, goiburuan adierazitakoaren arabera. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Lehen aukerak beste hiru galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera. Teknika egokiak menderatzea nahiz lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko da.

Azkenik, lehen aukeran baliteke galdera bat egotea ekonomia-terminoen ezagutza eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzeko. Galdera horrek **1,5 puntu** balio du, gehienez. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

#### B AUKERA

Bigarren aukerak balantze-analisi bat du. Galdera honek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea, eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desorekak eta desdoitzeak gertatuko balira hautemateko gai izatea. Batez ere, ikaslea emaitzen esanahi ekonomikoa ulertzeko eta interpretatzeko gai izatea balioetsiko da. Akats aritmetikoen kasuan, lehentasuna eman behar zaio ikaslearen arrazoibidearen ebaluazioari, eta ez zenbakizko emaitzaren zuzentasunari.

Bigarren aukerak beste bi galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, bigarren aukerako galdera batean, ekonomia-terminoak ezagutzea eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Galdera horrek gehienez **1,5 puntuko** balorazioa du. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.





## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratze-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie haiei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehienezko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarritzko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoen analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoaren arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.